Emaitzen txostena

2019

# Nafarroako Foru Komunitateko **parte-hartze kulturalari** buruzko inkesta

Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

Argitaraldia: 2019ko azaroan

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

Itzultzailea: LETE ITZULPENAK-TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa: EUSKO PRINTING SERVICE, SL

ISBN: 978-84-457-3508-4

Emaitzen txostena

# Nafarroako Foru Komunitateko **parte-hartze kulturalari** buruzko inkesta

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

# EDUKIEN AURKIBIDEA


**Hitzaurrea** ..... 11

**Aurkezpena** ..... 13

1. **Laginaren ezaugarriak** ..... 15

2. **Kulturarekiko jarrera orokorrak** ..... 19

2.1 Kultura-jarduueretan parte hartzearen garrantziaren autopertzepzioa ..... 19
2.2 Kultura-informazioko maila ..... 20
2.3 Kultura, lotura sozialen sortzaile ..... 21
2.4 Parte-hartze kulturalerako motibazioak ..... 22

3. **Praktika kulturalak** ..... 27

3.1 Praktika eszenikoak eta musikalak ..... 27
3.1.1 Antzerkira joatea ..... 27
3.1.2 Dantza-ikuskizunetara joatea ..... 28
3.1.3 Kontzertuetara joatea ..... 28
3.1.4 Grabatutako musika entzuteko maiztasuna ..... 29
3.1.5 Zuzeneko beste ikuskizun batzuk ..... 30
3.2 Ikus-entzunezko praktikak ..... 31
3.2.1 Zinemara joatea ..... 31
3.2.2 Bideo-jokoak ..... 33
3.2.3 Irratia eta telebista ..... 33
3.3 Irakurtzea ..... 35
3.3.1 Liburuak ..... 35
3.3.2 Egunkariak eta aldizkariak ..... 36
3.3.3 Liburutegira joatea ..... 38
3.4 Erakusketetarako bisitak ..... 40
3.4.1 Museoetarako asistentzia ..... 40

3.4.2 Arte-galerietarako asistentzia ..... 41
3.4.3 Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua ..... 42
3.5 Laburpen konparatiboa ..... 43

4. **Asoziazionismoa eta amateur mailako praktikak** ..... 46

4.1 Asoziazionismo kulturala ..... 46
4.2 Amateur mailako praktika artistikoak ..... 47
4.3 Arte-trebakuntza ..... 50

5. **Praktika digitalak** ..... 52

5.1 Interneterako sarbidea ..... 52
5.2 Kultura-praktika digitalak ..... 53
5.3 Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea ..... 54
5.4 Sare sozialak parte-hartze kulturalean ..... 57

6. **Euskarazko parte-hartze kulturala** ..... 58

6.1 Euskara jakitea ..... 58
6.2 Euskarazko parte-hartze orokorra ..... 59
6.3 Euskarazko kultura-praktikak ..... 60
6.3.1 Praktika eszenikoak eta musikalak euskaraz ..... 60
6.3.2 Euskarazko ikus-entzunezko praktikak ..... 63
6.3.3 Euskarazko irakurketa-praktikak ..... 65
6.3.4 Laburpen konparatiboa ..... 67
6.4 Euskarazko praktika digitalak ..... 68
6.4.1 Euskarazko irakurketa eta musika digitalak ..... 68
6.4.2 Euskarazko sare sozialak eta foroak ..... 70
6.4.3 Laburpen konparatiboa ..... 71
6.5 Amateur mailako praktikak: bertsolaritza ..... 71
6.6 Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak ..... 72
6.7 Informazio-kanalak ..... 74
6.8 Eskaintzaren mugak ..... 75

**Eranskinak** ..... 77

1. eranskina: **Gurutzaketa-grafikoak** ..... 79

2. eranskina: **Inkestaren fitxa teknikoa** ..... 151

# GRAFIKOEN AURKIBIDEA


1. Grafikoa. **Laginaren ezaugarriak, hizkuntza-eremuaren (A), sexuaren (B), udalerriaren tamainaren (C), adinaren (D), ikasketa-mailaren (E) eta euskararen ezagutzaren (F) arabera** ..... 16

2. Grafikoa. **Ikasketa-maila, adinaren arabera (%)** ..... 18

3. Grafikoa. **Euskararen ezagutza adinaren arabera (%)** ..... 18

4. Grafikoa. **Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren batez besteko balorazioa** ..... 19

5. Grafikoa. **Pertsonak, parte-hartze kulturalaren garrantziari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)** ..... 19

6. Grafikoa. **Kultura-informazioko mailaren autobalorazioa** ..... 20

7. Grafikoa. **Pertsonak, duten kultura-informazioko mailari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)** ..... 20

8. Grafikoa. **Pertsonak, kultura-jarduerari esker lotura sozialak sortu dituzten pertzepzioaren arabera (%)** ..... 21

9. Grafikoa. **Kultura praktiketarako motibazioak (%)** ..... 23

10. Grafikoa. **Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)** ..... 24

11. Grafikoa. **Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)** ..... 25

12. Grafikoa. **Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika motaren arabera (%)** ... 26

13. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan antzerkira joan diren maiztasunaren arabera (%)** ..... 27

14. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan dantzara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ..... 28

15. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan kontzertuetara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ..... 29

16. Grafikoa. **Pertsonak, grabatutako musika entzuten duten maiztasunaren arabera (%)** ..... 29

17. Grafikoa. **Zuzeneko arteek duten oihartzunaren rankinga, biztanleria-talde ezberdinen arabera (%)** ... 30

18. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan zinemara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ... 31

19. Grafikoa. **Pertsonak, azpitituludun filmak edo bikoiztutakoak nahiago izatearen arabera (%)** ... 32

20. Grafikoa. **Pertsonak, bideo-jokoak erabiltzen dituzten maiztasunaren arabera (%)** ... 33

21. Grafikoa. **Pertsonak, irratia eta telebista erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)** ... 34

22. Grafikoa. **Pertsonak, irratia eta telebista modu digitalean erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)** ... 34

23. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko hamabi hilabeteetan irakurri duten liburu kopuruaren arabera (%)** ... 36

24. Grafikoa. **Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)** ... 37

25. Grafikoa. **Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)** ... 37

26. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren maiztasunaren arabera (%)** ... 38

27. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietako kultura-jardueretara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ... 39

28. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ... 40

29. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan arte-galerietara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ... 41

30. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ... 42

31. Grafikoa. **Pertsonak, kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)** ... 43

32. Grafikoa. **Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (%)** ... 44

33. Grafikoa. **Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (%)** ... 46

34. Grafikoa. **Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera (%)** ... 47

35. Grafikoa. **Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak (%)** ........ 47

36. Grafikoa. **Amateur mailako kultura-praktiken intzidentzia-rankinga (%)** ........ 48

37. Grafikoa. **Amateur mailako praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)** ........ 49

38. Grafikoa. **Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotutako jardueraren bat egin behar duten pertsonak (%)** ........ 50

39. Grafikoa. **Arte- edo kultura-trebakuntzako alorren rankinga (%)** ........ 51

40. Grafikoa. **Internetera modu erregularrean sartzen diren pertsonak (%)** ........ 52

41. Grafikoa. **Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (%)** ........ 53

42. Grafikoa. **Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 54

43. Grafikoa. **Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 55

44. Grafikoa. **Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak beren tipologiari jarraikiz, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 56

45. Grafikoa. **Ohiko internauten artean, kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentziaren rankinga (%)** ........ 57

46. Grafikoa. **Euskararen ezagutza-maila, gaitasun ezberdinen arabera (%)** ........ 58

47. Grafikoa. **Biztanleria euskal hiztunaren bilakaera, 2008tik 2018ra (%)** ........ 59

48. Grafikoa. **Normalean euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 59

49. Grafikoa. **Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 61

50. Grafikoa. **Eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 62

51. Grafikoa. **Azkeneko 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 62

52. Grafikoa. **Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 63

53. Grafikoa. **Irratia eta telebista euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 64

54. Grafikoa. **Euskarazko irakurketa-maiztasuna azkeneko 3 hilabeteetan, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 65

55. Grafikoa. **Euskarazko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 66

56. Grafikoa. **Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 67

57. Grafikoa. **Euskarazko kultura-praktiken bilakaera 2008tik 2018ra bitartean, biztanleria osoaren artean (%)** ........ 68

58. Grafikoa. **Euskarazko praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren konparatiba, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 69

59. Grafikoa. **Euskarazko praktika kultural aktiboek esparru digitalean izan duten intzidentziaren konparatiba, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 70

60. Grafikoa. **Praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 71

61. Grafikoa. **Bertsolaritza praktikatzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ........ 72

62. Grafikoa. **Biztanleria osoan bertsolaritza praktikatzen duen pertsona kopuruaren bilakaera (%)** ........ 72

63. Grafikoa. **Euskarazko parte-hartze kulturala azaltzeko arrazoi subjektiboen rankinga (%)** ........ 73

64. Grafikoa. **Pertsonek euskarazko kultura-eskaintza ezagutzen duten informazio-kanal nagusiak (%)** ........ 74

65. Grafikoa. **Eskaintzaren muga nagusiak, biztanleriaren arabera (%)** ........ 75

# HITZAURREA

Nekez aurkituko dugu gure herriaren historian bizi dugun unea baino momentu kultural interesgarriagorik. Inoizko eskaintzarik oparoena daukagu ikus-entzunezkoan, arte eszenikoetan, musikan, literaturan edota artean. Eta neurtzen erraza ez bada ere, esango nuke behin ere ez dugula eduki horrenbeste talentu, edo ez behintzat talentu handia duten horrenbeste sortzaile.

Orain urte batzuk sinesgaitzak gertatuko ziratekeen gertakizunak ikusi ditugu azken urteotan, eta sektore guztietako zenbait sortzaileren oihartzuna gure mugez harago heldu da. Badugu, beraz, kantitatea, kalitatea eta foro espezializatuen aitortza; baina, ba al du gure kultur ekosistemak euskal gizartean mereziko lukeen agerikotasuna? Zer neurritan ezagutzen du gure gizarteak kulturaren munduan gertatzen ari den bigarren pizkunde hau?

Eskuartean duzun txostena gure gizartearen kultur ohituren erradiografia bat da. Helburua da, hain zuzen ere, kulturak herritarren praktiketan duen pisua erakustea, irudi zehatz bat eskainiz. Txostenean mundu osoko sortzaileek eta kultur adierazpenek gurean duten harrera neurtu da, baina arreta berezia jarri zaio bertoko sortzaileen kultur kontsumoari eta euskarazko kulturaren kontsumoari. Ondorioz, emaitzek irudi bat ematen dute dauden indarguneen eta hobetu beharreko alderdien inguruan. Irudi bat ematen dute kulturak gure herrian bizi duen uneaz eta, era berean, gure kulturak herri honetan duen pisuaz.

Azterlanak, beraz, datu zehatzak ematen dizkigu kulturaren munduan bolo-bolo dabilen gai baten gainean, interes handia dago-eta gai honen inguruan. Kultura kontsumitzeko modua asko aldatzen ari da azken urteotan eta, horren ondorioz, kultura bera ere aldatzen ari da. Tsunami digitalak, doakotasunaren kulturak edota globalizazioak lehengo agertokia zeharo aldatu dute. Eta horrek diagnosia fintzeko ahalegin bat eskatzen du.

Behatokiaren sorrerak 2006an horrelako ikerketak aurrera ateratzea ahalbidetu zuen, eta ez da nolanahiko kontua, kulturaren kudeaketak ikerketa behar baitu dagoen errealitatea ahalik eta ondoen ezagutzeko. Ezagutza hori izango da abiapuntua kultur politikak era egokian kudeatzeko.

Bingen Zupiria Gorostidi
*Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua*

# AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak ezagutzera ematen ditu *2018ko Nafarroako Foru Komunitateko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren* emaitzak. Azterlan zabala da, zeinak asistentziarekin lotutako praktikak, bisitak, kultura-jardueren irakurketa, ikuskatzea edo entzutea, osagai pertsonal aktiboagoa duten praktikak eta prestakuntza amateurra, eta kultura-edukiekin lotutako praktika digitalak hartzen dituen barnean.

Biztanleriaren parte-hartze kulturalaren argazki zehatza ematen duten adierazleak lortzea du helburu. Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren 15 urteko edo gehiagoko pertsonei egindako 1.350 elkarrizketak osatzen dute lagina. Bizileku-udalerriaren tamainaren araberako ordezkagarritasuna ziurtatzen du laginak, baita sexuaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren araberakoa ere, eta horrek parte-hartze kulturalaren banaketa soziala zein den jakitea ahalbidetzen du, biztanleria-talde guztien arabera1.

Aurkezten den txostena deskribatzailea da. Inkestaren informazioaren aberastasunak bide ematen du praktika jakin batzuen azalpenean sakontzeko emaitzak lantzeko, biztanleriaren segmentu espezifikoei zuzendutako azterketak egiteko, beste ingurune batzuekin begirada konparatuak izateko, eta abar. Emankorra izango dela aurreikusten dugun sorta bateko lehenengo azterlana da, beraz.

Duela hamar urte egindako aurrekari bat du azterlanak: *2007-2008 aldiko Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta*, Kulturaren Euskal Behatokiak bultzatutako estatistika-eragiketen artean lehena. Biztanleriaren kultura-praktika nagusien azkeneko hamarkadako bilakaeraren irakurketa alderatua egiteko ezinbesteko ardatza da.

Sei kapitulutan aurkezten da informazioa. Lehenengo kapituluan, erabilitako laginari buruzko zehaztapenak jasotzen dira.

Bigarren kapituluak, biztanleriak parte-hartze kulturalaren inguruan dituen jarrerei, horri ematen dion garrantziari, duen informazioari, kulturak lotura sozialak sortzeko duen eraginari eta pertsonak kultura-praktikak egitera bultzatzen dituzten motibazioei buruzko adierazleak jasotzen ditu.

Hirugarrenean, antolatutako kultura-praktiken xehetasuna jasotzen da, tipologien arabera: praktika eszenikoak eta musikalak, ikus-entzunezkoak, irakurketa-praktikak eta erakusketetara bisitak.

---

1 Laginaren fitxa aurki daiteke eranskinean.

Laugarren kapituluak elkarteetako parte-hartzea eta amateur mailako praktikak deskribatzen ditu, arte-jarduerak egiteari dagokionez, zein arte- eta kultura-ezagutzak eta -abildadeak eskuratzeari eta alor horietako prestakuntzari dagokionez.

Praktika digitalen ezaugarri diren adierazleetan sakontzen du bosgarren kapituluak; praktika horiek funtsezkoak dira gaur egungo parte-hartze kulturala ezagutzeko.

Euskarazko parte-hartze kulturala deskribatzen du seigarren kapituluak. Praktika ezberdinetan eragina duten beste aldagai batzuez gain, arreta berezia eskaintzen zaio euskararen lurralde ezberdinen arteko alderaketari.

Amaitzeko, grafiko xehatuen eranskin osoa eta inkestaren fitxa teknikoa ditu txostenak.

# 1. LAGINAREN EZAUGARRIAK

Biztanleria modu leialean ordezkatzeko daude haztatuak datuak, bizileku-udalerriaren tamainaren, sexuaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren (biztanleria euskal hiztuna edo ez) arabera orekatuta. 2. eranskinean, inkestaren fitxa kontsulta daiteke

Grafiko batzuek "Biztanleria osoa" 2kategoriarekiko bestelako oinarria dute ehunekoak kalkulatzeko. Kasu horietan, oinarritzat balio duen biztanleria-taldea hautatzen duen iragazkia eta guztizkoarekiko duen pisua adierazten dira.

Laginaren ezaugarriei dagozkien aipatutako aldagaiek, ikasketa-mailaren aldagaiarekin batera, gurutzaketa-aldagai gisa balioko dute. **Aldeen intentsitatea identifikatzen duen kolore-eskala bat** erabiliko da adierazteko zenbateraino laguntzen duten aldeak ikusten ehunekoarekiko edo batezbesteko globalarekiko:

| ALDAGAIAK EZ DU ALDERIK AZALTZEN | ALDAGAIAK ALDE TXIKIAK AZALTZEN DITU | **ALDAGAIAK ALDE NABARMENAK AZALTZEN DITU** |
|---|---|---|

Adibidean bezala, hizki lodiz ere nabarmentzen da emaitza edo batezbesteko orokorrarekiko alderik handienak erakusten dituzten aldagaiak identifikatzen dituen kategoria.

Gurutzaketa-aldagaiak osatzen dituzten kategoriak honako hauek dira:

- **Hizkuntza-eremuak**. Eremu euskalduna, eremu mistoa eta ez-euskalduna bereiziz.
- **Sexua.** Gizona edo emakumea.
- **Udalerriaren tamaina.** Biztanleria-tamainaren araberako tarteak identifikatzen ditu, eta aparte jasota daude hiriburuak.
- **Adina.** 10 urteko tarteak 15 urtetik 65 urtera arte. 65 urtetik aurrera kategoria bakartzat hartzen da.
- **Ikasketa-maila.** Belaunaldien arabera titulu ezberdinak daudenez, eta horrek dakarren konplexutasuna sinplifikatze aldera, batzuen eta besteen artean dauden aldeak talde berean batzeko zailtasunak egon arren, lau talde bereizi dira, etiketa sinpleak erabilita analisia errazteko:

2 Datu –haztatu– baliodunen guztizkoarekiko ehuneko edo portzentajeak erabiliko dira azterketan. Kategoria honen barruan ez da kontuan hartuko "Ez daki/ez du erantzuten" kategoria. Horrenbestez, laginaren guztizkoa baino zertxobait txikiagoak izan daitezke kasu horietan. Orokorrean kasu kopuru murritza duen kategoria da, eta ezabatu egiten da nahasteak saihesteko eta emaitzen irakurketa eta interpretazioa errazteko.

- Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketekin: gehienez ere lehen mailako hezkuntza dutenak zein ikasketarik ez dutenak biltzen ditu.
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza (Oinarrizko Batxilergoa, OHO edo DBH).
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza ondokoa (Goi Mailako Batxilergoa, BBB, Batxilergoa LOGSE, UBI, LH maila ertaina eta goi-maila)
- Unibertsitate mailako ikasketak.

◆ **Euskara jakitea.** Horrela bereizten du biztanleria: euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenak (biztanleria euskal hiztuna) eta euskaraz hitz egiten ez dutenak (erdaldunak).

1. Grafikoa.

**Laginaren ezaugarriak, hizkuntza-eremuaren (A), sexuaren (B), udalerriaren tamainaren (C), adinaren (D), ikasketa-mailaren (E) eta euskararen ezagutzaren (F) arabera**

**A. Pertsonak hizkuntza-eremuaren arabera (% )**




**A. Pertsonak hizkuntza-eremuaren arabera (% )**




**C. Pertsonak, bizi diren udalerriaren tamainaren arabera, biztanle kopuruari dagokionez (% )**



### D grafikoa. Pertsonak adinaren arabera (% )




### E. Pertsonak, amaitutako ikasketa-mailaren arabera




### Pertsonak, euskararen ezagutzaren arabera




Gainera, aldagai horietako batzuk gurutzatzeak lagina osatzen duten profilak hobeto ulertzen laguntzen du. Hain zuzen ere, datuak hobeto interpretatzeko, beharrezkoa da adinak ikasketa-mailarekin eta euskara jakitearekin duen erlazioa kontuan izatea.

Ikusten den bezala, **ikasketa gutxien** dituzten pertsonak dira gazteenak (adinagatik, oraindik ez dituztelako ikasketak amaitu) eta adinez nagusienak direnak (belaunaldi-efektuagatik, goragoko mailetako hezkuntza-mailak haien gaztaroa eta eskolaratze-garaia baino beranduago hedatu baitziren).

2. Grafikoa.
**Ikasketa-maila, adinaren arabera (%)**




**Euskararen ezagutzari** dagokionez, jende gazteak euskara proportzio handiagoan hitz egiten duela ikus daiteke.

3. Grafikoa.
**Euskararen ezagutza adinaren arabera (%)**



# 2. KULTURAREKIKO JARRERA OROKORRAK

## 2.1 Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren autopertzepzioa

1etik 10erako eskala batean, zeinean pertsonei kultura-jardueretan parte hartzeak berentzat duen garrantzia puntuatzea eskatzen den, **7,39 puntuan** dago batez besteko balorazioa. Horrenbestez, **balio handia** da, eta parte-hartze kulturalak errekonozimendu soziala baduela erakusten digu horrek.

4. Grafikoa.
**Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren batez besteko balorazioa**




5. Grafikoa.
**Pertsonak, parte-hartze kulturalaren garrantziari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)**




Ematen zaion garrantzia oso homogeneoa bada ere, alde batzuk ikusten dira ikasketa-maila, euskararen ezagutza eta sexuaren arabera (Ikus erantsitako 1. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Goi- mailako prestakuntza duten pertsonek garrantzi handiagoa ematen diote parte-hartze kulturalari (7,72) beheragoko prestakuntza-maila dutenek baino (7,11).
- Euskal hiztunek 7,77ko garrantzia ematen diote kulturarik eta 7,34, aldiz, erdaldunek.
- Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan balioesten dute kultura, batez besteko 7,73ko puntuazioarekin lehenengoen kasuan eta 7,08koarekin bigarrenenean.
- Udalerriaren tamainaren arabera

Lurraldeen arteko aldeak oso oso txikiak dira. Eremu euskaldunean 7,44 da,mistoan 7,41 eta eremua erdaldunean 7,32.

## 2.2 Kultura-informazioko maila

1etik 4rako balorazio-eskala batean, non 1 ezer den eta 4 asko den, pertsonek **2,83an** sailkatzen dute beren inguruneko kultura-eskaintzari buruzko informazio-maila. Hau da, **nahiko informatuta** daudela uste dute.

6. Grafikoa.
**Kultura-informazioko mailaren autobalorazioa**




7. Grafikoa.
**Pertsonak, duten kultura-informazioko mailari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)**




Alde txikiak ikusten dira ikasketa-mailaren, euskararen ezagutzaren, adinaren eta sexuaren arabera (Ikus erantsitako 2. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Goi-mailako prestakuntza duten pertsonak 3ko batezbestekora iristen dira, behe-mailako prestakuntza duten pertsonak 2,71ra eta erdi-mailakoa duten pertsonak 2,78ra.
- Antzeko aldea, 0,2 puntu eskasekoa, ematen da euskal hiztunen eta erdaldunen artean (2,98 eta 2,81, hurrenez hurren).
- Adinak kontuan izanda, gazteek uste dute adineko pertsonek baino informazio gutxiago dutela. Batezbesteko handiena duen adin-taldea 44-55 urteko taldea da (3,02). Kontrako aldean daude 15-24 urteko pertsonak, 2,61eko batezbestekoarekin.

Lurralde-eremuan, aldeak ezin txikiagoak dira eremu ez-euskaldunaren, eremu mistoaren eta eremu euskaldunaren artean (2,90, 2,81 eta 2,86, hurrenez hurren).

## 2.3 Kultura, lotura sozialen sortzaile

Biztanleriaren pertzepzioaren arabera, **lotura sozialak sortzeko aitortutako gaitasuna** du kulturak.

8. Grafikoa.
**Pertsonak, kultura-jarduerari esker lotura sozialak sortu dituzten pertzepzioaren arabera (%)**




Lotura sozialak sortzeko kulturak jokatzen duen paperaren errekonozimenduan, aldeak batez ere hori sarritan gertatu den kategoriei soilik dagokienez izaten dira. Adinak erakusten ditu alde handienak, ikasketa-mailan ere ematen direlarik, eta neurri txikiagoan, gainerako aldagaietan (Ikus erantsitako 3. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Zentzu horretan, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen kasuan, % 48,7 da kultura-jarduerari esker maiz beste pertsona batzuekin harremana izan dutela adierazten dutenen portzentajea; zifra hori % 36,4ra jaisten da prestakuntza gutxiago dutenen kasuan.
- Adinari dagokionez, kulturak errekonozimendu handiagoa du lotura sozialen sortzaile gisa gazteen artean. Guztira, 15-24 urteko pertsonen % 79,5ek onartzen dute noizean behin edo maiz lagunak egin dituztela edo harremanak ezarri dituztela kultura-jardueraren bidez. Portzentaje hori % 47,9raino murrizten da 65 urtetik gorakoen artean.
- Euskararen ezagutzaren arabera, euskal hiztunek kasuen % 6an baino gehiagoan onartzen dute kulturaren paper hori.

Eremu mistoan kulturaren gaitasun horren errekonozimendua zertxobait handiagoa da eremu ez-euskaldunarekin eta euskaldunarekin alderatuz gero (% 65 batetik eta % 59,8 eta % 57,8 bestetik, hurrenez hurren).

## 2.4 Parte-hartze kulturalerako motibazioak

Premia desberdinak betetzeak bideratzen du motibazioa kultura-jarduerarekiko. Gainera, premia desberdinak egokiagoak izan daitezke premia jakin batzuk edo beste batzuk gogobetetzeko.

Normalean lau motibazio mota nabarmentzen dira, eta kulturak erantzuteko gaitasuna duen premien multzoa biltzen dute:

- **Motibazio sinbolikoa:** pertsona gisa aberasteko premiarekin dago lotuta, autoerrealizatzeko premiarekin.
- **Motibazio kulturala:** jakintza gehitzeko premiarekin dauka zerikusia espezifikoki.
- **Motibazio soziala:** jarduera kultural batean parte hartzeak beste jende batekin erlazionatzeko eta esperientzia partekatzeko premiarekin izan dezake zerikusia.
- **Motibazio emozionala:** azken batean, deskonektatzeko, errutinatik ateratzeko eta sentsazio berriak esperimentatzeko premiak bereizitako laugarren motibazioa definituko du.

### *Kultura-praktiketarako motibazioa*

Kontsumo pasiboko jardueretarako asistentzian edo jardueren burutzapenean **motibazio emozionala da ohikoena** (% 34,8). Premia sinboliko eta kulturala ditu atzetik % 25,3rekin eta % 25,2rekin. Guztien atzetik, motibazio soziala dago (% 14,8).

9. Grafikoa.
**Kultura praktiketarako motibazioak (%)**




Alde interesgarriak ikusten dira gurutzaketa-aldagai guztien kategoria guztietarako, sexuaren kasuan izan ezik (Ikus erantsitako 4. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Ikasketa-mailaren arabera, motibazio sinbolikoaren pisua prestakuntza handiagoa duten pertsonen artean gehitzen dela ikusten da: % 35,1 batetik eta % 19,2 eta % 21,1 bestetik, behe- eta erdi-mailako prestakuntza duten pertsonen kasuan, hurrenez hurren.
- Euskal hiztunen artean, motibazio sozialak pisu zertxobait handiagoa du batezbestekoarekin alderatuz gero (% 19).
- Adinaren arabera, nabarmentzekoa da motibazio kulturalaren gehikuntza progresiboa adina gehitzen den neurrian, 15-24 urteko % 21,2tik 65 urtetik gorako % 36,7raino iritsita. 15-24 urte bitarteko gazteen artean, aitzitik, motibazio sozial eta emozionalek pisu handiagoa dute (% 26,7 eta % 34,9, hurrenez hurren).
- Udalerriaren tamaina kontuan izanda, 25.000-50.000 biztanleko hirietan hausten da batez ere patroia, bertan hartzen baitu motibazio sinbolikoak garrantzi handiagoa batezbestekoarekin alderatuta (% 36,8).

## *Amateur mailako praktiketarako motibazioa*

Amateur mailako praktiken kasuan proportzio garrantzitsu batean nabarmentzen dira **motibazio emozionalak** (% 36,2) zein **sinbolikoak** (% 31,4). Pisu ertainarekin dugu motibazio soziala (% 20,5), kulturala izanik ezohikoena parte-hartze kulturaleko mota honetan (% 11,9).

10. Grafikoa.
**Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)**




Aurreko kasuan bezala, aldeak ikusten dira aldagai guztien kategoria espezifikoei dagokienez (Ikus erantsitako 5. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Ikasketa-mailari kasu eginez, berriz ere ikusten da motibazio sinbolikoa hazi egiten dela prestakuntza-maila handiagoa duten pertsonen artean (% 36,6). Prestakuntza-maila ertaina duten pertsonen artean, aldiz, motibazio sozialaren pisua nabarmentzen da (% 44,1). Azkenik, behe-mailako prestakuntza dutenen artean, sozialak zein emozionalak % 32,7ko portzentajea partekatzen dute, gainerakoen gainetik. Kasu guztietan ere, batezbestekoan atxikitzen da motibazio kulturala.
- Euskararen ezagutzaren arabera, aldeak oso txikiak dira. Euskal hiztunen artean, motibazio emozionala batezbestekoaren azpitik dago (% 29,6), motibazio sinbolikoaren alde (% 35,2).
- Adina kontuan izanda ez dago patroi argi bat, baina bai aldeak. Motibazio soziala 35-44 urteko eta 55-64 urteko pertsonen artean nabarmentzen da. 45-54 urtekoen artean motibazio emozionala da oso modu berezian nabarmentzen dena. Gazteenen artean, motibazio sinbolikoa eta kulturala nabarmentzen dira batezbestekoaren gainetik (% 35,3 eta % 17,6, hurrenez hurren).
- Emakumeen artean, emozionala da motibazio nagusia (% 38,7), eta gizonen artean, aldiz, sinbolikoa (% 37,6).
- Udalerriaren tamaina kontuan izanda, 25.000-50.000 biztanleko hiriek hautsi egiten dute berriz ere batez besteko patroia: motibazio sinbolikoak garrantzi handiago hartzen du (% 43,3).

### *Praktika digitaletarako motibazioa*

Azkenik, alor digitaleko jarduerari dagokionez, aurreko kasuan ez bezala, argi eta garbi gailentzen da **motibazio kulturala**, % 45,6ko portzentajearekin.

11. Grafikoa.
**Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)**




Aldagai guztien bidez, patroia izugarri atxikitzen da, eta adinarekin, ikasketa-mailarekin eta udalerriaren tamainarekin zerikusia duten kategoriak soilik nabarmentzen dira eta, neurri txikiagoan, euskararen ezagutza (Ikus erantsitako 6. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | **UDALERRIAREN TAMAINA** |
|---|---|---|---|---|

- Ikasketa-mailaren arabera motibazio kulturalak prestakuntza-maila handiena dutenen artean duen pisu askoz ere handiagoa nabarmentzen da (% 53,9). Prestakuntza-maila txikiena dutenen artean, aldiz, motibazio sozialak eta emozionalak pisu handiagoa hartzen duten (% 29 eta % 25, hurrenez hurren).
- Adinen arabera, patroi ia berbera ikusten da 35 urtetik gora: motibazio kulturalak agintzen du % 50en gainetik. Gazteenen artean, aldiz, motibazio sozialak agintzen du, % 39,1ekin.
- Udalerriaren tamaina kontuan izanda, 25.000-50.000 biztanleko hiriek berriz ere gainerakoek agertzen dutenaren bestelako joera dute. Kasu horretan, garrantzi handiagoa hartzen du motibazio sinbolikoak (% 32,1).
- Euskal hiztunen artean, motibazio sinbolikoak pisu zertxobait handiagoa du (% 23,5).

### *Alderaketarako begirada*

Parte hartzeko modu bakoitzak motibazioen patroi desberdina du:

- Motibazioen aniztasuna homogeneoagoa gertatzen da **praktika kulturaletan**, alde aipagarriak badaude ere: motibazio emozionalak agintzen du, baina motibazio sinbolikoak zein kulturalak pisu garrantzitsuak atxikitzen dituzte.
- Aldiz, **praktika digitaletan**, alde handiarekin nabarmentzen da motibazio kulturala (kasuen % 45,6), gainerakoak % 16tik % 21era bitartean geratzen diren bitartean.
- Azkenik, **amateur mailako praktiketan** agintzen duten motibazioak erabat desberdinak dira praktika digitalekin alderatuz gero: motibazio kulturala hondarrezkoa da, eta motibazio sinbolikoa eta emozionala nagusitzen da.

12. Grafikoa.
**Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika motaren arabera (%)**



# 3. PRAKTIKA KULTURALAK

## 3.1 Praktika eszenikoak eta musikalak

### 3.1.1 *Antzerkira joatea*

Azken 12 hilabeteetan,biztanleriaren **% 51,5** antzerkira joan da behin gutxienez.

13. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan antzerkira joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Aldeei erreparatzean, intzidentzia desberdinarekin nabarmentzen dira adina, euskararen ezagutza eta sexua (Ikus erantsitako 7. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonek maila beheragoko ikasketak dituzten pertsonek dutena baino asistentzia handiagoa dute (% 65,0 batetik eta % 36,5 eta % 51,7 bestetik, behe- eta erdi-mailako prestakuntza dutenei dagokienez, hurrenez hurren).
- Adinen arabera, bertaratuen proportzio handiena tarte gazteenen artean dago, 25-34 urteko pertsonak nabarmentzen direlarik (% 64,3). Gutxien joaten direnak 65 urtetik gorakoak dira (% 37,3).
- Biztanleria euskal hiztunaren % 59,7 joaten da antzerkira; portzentaje hori erdaldunena baino 9 puntu handiagoa da (% 50,6).
- Portzentajezko 6 punturen aldea dago gizonen eta emakumeen artean: emakumeak kasuen % 55,4an joaten dira antzerkira, eta gizonak % 48,1ean.

Asistentzia-mailak handiagoak dira eremu mistoan eremu ez-euskaldunean eta bereziki eremu euskaldunean baino (% 54,7, % 49,3 eta % 38,4, hurrenez hurren).

### 3.1.2 *Dantza-ikuskizunetara joatea*

Guztira, biztanleriaren **% 30,2** joan da azkeneko urtean dantza-ikuskizunen bat ikustera.

14. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan dantzara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Dantzaren kasuan euskararen ezagutzarekin (eta eremu euskaldunarekin) zerikusia duten alde handiak ikusten dira, eta adinaren eta ikasketa-mailaren aldeek garrantzi txikiagoa dute (Ikus erantsitako 8. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | **EUSKARA JAKITEA** | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Kasuen % 47,4an joaten dira dantza-ikuskizunetara euskal hiztunak, erdaldunak baino 24 puntu gehiagoko proportzioarekin.
- Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak prestakuntza akademiko txikiagoa dutenak baino neurri handiagoan joaten dira (% 34,4 batetik eta % 26 bestetik).
- Adinari dagokionez, aldeak ez dira esanguratsuak tarteen artean, 65 urtetik gorako taldeko pertsonen kasuan izan ezik, asistentzia-maila txikiagoa baitute (% 22,8).

Hizkuntza-eremuei dagokienez, eremu euskaldunean nabarmentzen da asistentzia-maila (% 38,6). Eremu ez-euskaldunean 7 puntu txikiagoa da gutxi gorabehera eta, eremu mistoan, ia 11 puntu txikiagoa.

### 3.1.3 *Kontzertuetara joatea*

Biztanleen **% 65,4** joan dira gutxienez kontzertu batera azkeneko hamabi hilabeteetan. Pertsona horien % 27,4 joan dira lau kontzertu baino gehiagotara denboraldi horretan.

15. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan kontzertuetara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Ikasketa-mailak, adinak eta euskararen ezagutzak zerikusi handia dute kontzertuetarako asistentzian dauden aldeetan (Ikus erantsitako 9. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Prestakuntza handiagoa duten pertsonen artean, kontzertuetarako asistentzia-maila handiagoa da prestakuntza-maila txikiagoa duten pertsonen artean baino. Lehenengoak kasuen % 77,1ean joaten dira eta bigarrenen kasuan, aldiz, % 50,6an.
- Kontzertuetarako asistentziak behera egiten du adinak gora egiten duen neurrian, eta bereziki txikia da 65 urtetik gorakoen artean. 15-34 urte bitarteko gazteen taldean, % 75era iristen da portzentajea gutxi gorabehera; 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 48,1 da portzentaje hori. 35 eta 54 urte bitartekoen adin-taldean % 65 inguruan mantentzen da.
- Euskal hiztunen artean, % 77,3 joan dira kontzertuetara, erdaldunekiko ia 14 puntuko aldearekin.



Eremu ez-euskaldunean dago asistentzia-portzentaje handiena atzetik eremu mistoa eta, azkenik, eremu euskalduna daudelarik (% 68,5, % 65,3 eta % 60,5 hurrenez hurren).

## 3.1.4 *Grabatutako musika entzuteko maiztasuna*

Biztanleriaren **% 75,4k** entzuten du maiztasun handiz (egunero edo astero) grabatutako musika.

16. Grafikoa.
**Pertsonak, grabatutako musika entzuten duten maiztasunaren arabera (%)**



Adinak ezartzen ditu alderik handienak, nahiz eta badauden aldeak ikasketa-mailaren eta euskararen ezagutzaren arabera ere (Ikus erantsitako 10. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- 15 eta 24 urte bitartekoen biztanle gehienek entzuten dute musika egunero (% 81,5). Portzentaje hori progresiboki murrizten da 65 urtetik gora alde esanguratsu batera iritsi arte (% 28,9).
- Ikasketa-mailak mailaz mailako eskala bat erakusten du egunero musika entzuten dutenei dagokienez, ikasketa-maila handia, ertaina edo txikia dutenen artean (% 60,0, % 55,6 eta % 46,3, hurrenez hurren).
- Euskararen ezagutzari dagokionez, biztanleria euskal hiztunak musika gehiago entzuten du erdaldunak baino (% 60,5 batetik eta % 53,7 bestetik).



Eremu mistoan koska handiago bat ikus daiteke grabatutako musika egunero entzuteari dagokionez (% 55,7), eremu euskaldunarekin eta eremu ez-euskaldunarekin alderatuta (% 50,3 eta % 46,6 hurrenez hurren).

## 3.1.5 ***Zuzeneko beste ikuskizun batzuk***

Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez zuzeneko ikuskizun batera joan direla adierazi duten pertsonei genero zehatzetako ikuskizunetara joan.

Ildo horretan, bereziki nabarmentzen dira musikala (% 38,5), haurrentzako antzerkia (% 27,9), magia-ikuskizunak (% 23,8). Tarte handira daude bertsolari-saioak, zirkua eta opera (% 11,3, % 9,7 eta % 8,3, hurrenez hurren).

17. Grafikoa.
**Zuzeneko arteek duten oihartzunaren rankinga, biztanleria-talde ezberdinen arabera (%)**



Erantsitako 11. (Musikalak), 12 (Haurrentzako antzerkia), 13. (Magia-ikuskizunak), 14. (Bertsolariak), 15 (Zirkua) eta 16. (Opera) grafikoetan ere kontsulta daitezke aldeak gurutzaketa-aldagaietan oinarrituta. Oro har begiratuta, nabarmentzekoa da:

- Magia-ikuskizunetan 35-44 urteko pertsonen proportzio nabarmena dago, baita haurrentzako antzerkikoetan eta zirkukoetan ere.
- Musikalek presentzia handiagoa dute 25.000-50.000 biztanleko hirietan.
- Operan, 65 urteko edo hortik goragoko pertsonen proportzioa zertxobait handiagoa da, baita 15-24 urteko tartekoena ere. Gainera, hiriburuan eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean nabarmentzen da.
- Bertsolarien ikuskizunetarako asistentziari dagokionez, argi eta garbi ikusten da hizkuntza-auzia, euskararen ezagutzaren zein bizileku-eremuaren arabera.

## 3.2 Ikus-entzunezko praktikak

### 3.2.1 *Zinemara joatea*

Biztanleen **% 72,9** joan dira gutxienez behin zinemara, azkeneko hamabi hilabeteetan. Biztanleen % 45,3 lau aldiz baino gehiagotan joan dira aldi berean.

18. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan zinemara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Zinemara joateari dagokionez, alde nabarmenak daude adinaren eta ikasketa-mailaren arabera (Ikus erantsitako 17. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, % 83,2 da zinemara joaten direnen portzentajea. Beheragoko mailako prestakuntza akademikoa duten pertsonen artean % 56,3 da.
- 15 eta 24 urte bitartekoen taldean, ia guztiak joaten dira zinemara (% 95,2). Portzentaje hori % 80-85 murrizten da 25-54 urtekoen artean, eta jauzi nabarmena gertatzen da 55 urtetik gorakoen artean, lehenik, eta 65 urteko gorakoen artean, bigarrenik. Azken horien kasuan, % 42,2 da asistentzia.

- Gizonen eta emakumeen arteko aldea % 7 da soilik, eta emakumeak dira zinemara gehien joaten direnak.

Eremu mistoan dago asistentzia-portzentaje handiena, % 74,8rekin. Eremu euskalduna hurbil dago % 72rekin eta eremu ez-euskalduna zertxobait urrunago, % 66,2rekin.

### *Azpitituluen aldeko jarrera*

Biztanleen **% 25,3k** nahiago dute filmak jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin ikustea.

19. Grafikoa.
**Pertsonak, azpitituludun filmak edo bikoiztutakoak nahiago izatearen arabera (%)**




Azpitituluak nahiago izatea aldatu egiten da prestakuntza-mailen, euskararen ezagutzaren, udalerriaren tamainaren eta, batez ere, adinaren arabera (Ikus erantsitako 18. grafikoa)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Gazteen (15-34 urte) % 43,8 inguruk ditu nahiago azpitituludun filmak. Azpitituludun filmak gutxien nahi dituzten tarteak 45-54 urteko eta 65 urteko gorako biztanleak dira (% 13,2 eta % 14,7, hurrenez hurren).
- Goi-mailako ikasketak dituztenen artean, % 33k nahiago dituzte azpitituludun filmak bikoiztutakoak baino; lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen edo ikasketarik gabekoen kasuan, berriz, % 20,3 da portzentaje hori.
- Euskal hiztunek neurri handiagoan dituzte nahiago azpitituluak, erdaldunekin alderatuta (% 33,6 eta % 24,3).
- Udalerriaren tamainari dagokionez, tamaina txikiagoko udalerrietan bizi diren pertsonak joera txikiagoa dute azpitutuluen alde (% 19,4).

Eremuko biztanleen % 29,6k nahiago dute azpitituludun filmak ikustea bikoiztutako filmak baino, beste eremuak gaindituz.

### 3.2.2 *Bideo-jokoak*

Nafarroako biztanleen **% 19** jolasten dira noizean behin edo maiztasun handiagoz bideo-jokoetan. Jolasten direnen artean, erdiak baino gehiago jolasten dira maiztasun handiz (astean hainbat aldiz edo egunero).

20. Grafikoa.
**Pertsonak, bideo-jokoak erabiltzen dituzten maiztasunaren arabera (%)**




Alde nabarmenak ikusten dira bideo-jokoen erabileran adinaren eta, neurri txikiagoan baina modu esanguratsuan, baita sexuaren arabera ere (Ikus erantsitako 19. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Gehien jolasten direnen artean (gizonak eta 15-34 urte bitarteko gazteak), handia da intentsitatea (“noizean behin” jolasten direnena baino handiagoa da “egunero” jolasten direnen portzentajea).
- 15-24 urteko tartean dauden pertsonak kasuen % 51,7an jolasten dira, 25-34 tartean daudenak % 26,6an eta 35-44 tartean daudenak % 15,6an. Hortik aurrera, praktika jaitsi egiten da.
- Sexuari dagokionez, gizonak kasuen % 15,3an jolasten dira egunero, eta % 9an noizean behin; emakumeen kasuan, % 6,6 eta % 6,9 dira portzentaje horiek.

Bideo-jokoen erabilerako eta maiztasuneko portzentajeak zertxobait igotzen dira eremu mistoan batezbestekoarekiko.

### 3.2.3 *Irratia eta telebista*

Egunerokoari dagokionez, biztanleriaren **% 81,5ek** dio telebista ikusten duela. Irratia egunero entzuteak portzentaje txikiagoa lortzen du, **% 64,2**.

21. Grafikoa.
**Pertsonak, irratia eta telebista erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)**




Bitarteko digitalean, ez dira batere praktika ohikoak telebista eta irratia, duten intzidentzia orokorrarekin alderatuta.

22. Grafikoa.
**Pertsonak, irratia eta telebista modu digitalean erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)**




## *Telebistaren erabilera-mailak*

Eguneroko edo asteroko maiztasunaren arteko bereizketan ikusten dira alde nabarmenak, adinari eta ikasketa-mailari kasu eginez bereziki, eta, neurri txikiagoan, sexuari (Ikus erantsitako 20. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- 15-34 urteko bitarteko pertsonak dira telebista egunero gutxien ikusten dutenak, % 65,1-% 72,2 bitarteko portzentajeetan. Pertsona horien proportzio handiago batek astero ikusten du.

- Ikasketa-mailaren arabera, telebista egunero gehiago ikusten duten pertsonak dira behe-maila dutenak (% 86,1).
- Telebista egunero ikusten duten erdaldunen portzentajea euskaldunena baino handiagoa da (% 82,6 eta % 73,8, hurrenez hurren).
- Sexuaren arabera, gizonek gehiago ikusten dute egunero emakumeek baino (% 86,1 eta % 76,5, hurrenez hurren).

Hizkuntza-eremuen araberako aldeak ez dira esanguratsuak, telebistaren eguneroko kontsumoa eremu mistoan gainerako eremuetan baino txikiagoa bada ere.

### *Irratiaren erabilera-mailak*

Gazteenen mailetan ikusten dira batez ere alde nabarmenenak, baita behe-mailako ikasketak dituztenen artean ere, beren arteko erlazioa erakutsiz (Ikus erantsitako 21. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- 45-54 urteko tartea nabarmentzean da egunero irrati gehien entzuten duen tarte gisa (% 76,5). Irratia egunero gutxien entzuten duen adin-tartea 15-24 urteko tartea da (% 43,4).
- Ikasketa-mailaren arabera, prestakuntza-maila handiak edo ertainak dituen biztanleriak irrati gehiago kontsumitzen du behe-mailakoak baino.

Irratia eremu euskaldunean entzuten da gehien, atzetik eremu ez-euskalduna eta eremu mistoa dituelarik (% 85,5, % 82,4 eta % 78,5, hurrenez hurren

## 3.3 **Irakurtzea**

### 3.3.1 ***Liburuak***

Biztanleen **% 74k** irakurri du gutxienez liburu bat (entretenimendu modura) erreferentziazko azkeneko 12 hilabeteetan. Gehiengo zabal batek lau liburu edo gehiago irakurri ditu aldi berean.

23. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko hamabi hilabeteetan irakurri duten liburu kopuruaren arabera (%)**




Ikasketa-mailak erakusten ditu alde garrantzitsuenak irakurtzearen eta ez irakurtzearen artean, baina irakurketaren intentsitatean aldeak ere ikusten dira sexuaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 22. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Goi-mailako ikasketak dituztenen % 89,8k gutxienez entretenimenduzko liburu bat irakurri dute azken 12 hilabeteetan. Pertsona horietatik % 63,7k lau liburu baino gehiago irakurri dituzte. Behe- eta erdi-mailako ikasketetan irakurleen proportzioak nabarmen egiten du behera (% 76,4 eta % 52,2, hurrenez hurren).
- Gizonen eta emakumeen artean, aldea nabarmena da irakurketa-intentsitateari dagokionez; emakumeen % 54,6k irakurri dituzte lau liburu baino gehiago erreferentziazko denboraldian, eta gizonen % 32,6k.
- Adinaren arabera, irakurketa-maila handienak 34 urte arteko biztanleen artean daude. 25-34 urtekoen artean, ohiko irakurketa eta noizbehinkakoa handiak dira (% 48,8 eta % 35,0, hurrenez hurren). Liburu gutxien irakurtzen dituen tartea 65 urtetik goragokoa da.



Eremu mistoan, % 76,7ra igotzen da irakurketa-portzentajea. 4 liburu edo gehiagoren irakurketa-portzentajean gertatzen da bereziki aldea. Kasu honetan, % 46,5 da eta % 33,7, aldiz, eremu ez-euskaldunean.

## 3.3.2 *Egunkariak eta aldizkariak*

Biztanleen **% 84,3k** diote egunero, astero edo hilero (% 56,3, % 23,9 eta % 4,1, hurrenez hurren) irakurtzen dituztela egunkariak. Aldizkariek intzidentzia txikiagoa dute globalki, **% 42,9**, eta gainera maiztasun-patroia aldatzen da, ohikoena asteko maiztasuna delarik (% 23,6), atzetik hilerokoa (% 15,6) eta, azkenik, egunerokoa (% 3,8) dituelarik.

24. Grafikoa.
**Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)**




Euskarri digitalen bitartez egiten da egunkarien irakurketaren zati handi bat; fenomeno hori aldizkarien kasuan ere agertzen da, baina askoz neurri txikiagoan.

25. Grafikoa.
**Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)**




## *Egunkarien irakurketa-maila*

Alde garrantzitsuenak adinarekin eta ikasketa-mailarekin lotuta daude (Ikus erantsitako 23. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Adinaren arabera, 65 urtetik gorakoen artean aurreko taldearekiko jaitsiera txiki bat dagoela ikusten den arren, egunkarien irakurketa handituz doa adinak aurrera egin ahala. Egunkarien irakurketa % 58,9 da talderik gazteenean, eta ia % 90,6, aldiz, 55 urtetik 64 urtera bitarteko taldean. Egunerok maiztasunetik abiatuta ikusten da batez ere aldea.

- Goi- eta erdi-mailako ikasketak dituzten pertsonak kasuen % 86,4an eta % 80,3an irakurtzen dute prentsa, hurrenez hurren. Behe-mailako ikasketak % 73,2raino jaisten dira.

La ez dago hizkuntza-eremuen arteko alderik prentsa-irakurketari dagokionez.

### *Aldizkarien irakurketa-mailak*

Egunkariek baino intzidentzia txikiagoa dute aldizkariek eta aldagaiek eragindako aldeak txikiagoak dira. Hori gorabehera, adinaren araberako aldeak ikusten dira, baita, neurri txikiagoan, euskararen araberakoak ere (Ikus erantsitako 24. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Adinaren arabera ere ikusten da alderen bat –txikia izan arren–; adin handiagoko pertsonek gazteek baino gehiago irakurtzen dituzte aldizkariak (10 puntu inguruko aldea guztira muturren artean).
- Euskararen ezagutzaren arabera, euskal hiztunen eta erdaldunen arteko aldizkarien irakurleen proportzioak 9 puntuko aldea erakusten du lehenengoen alde.

Aldizkarien irakurketa eremu euskaldunean nabarmentzen da, 7 puntuko aldearekin eremu ez-euskaldunarekin alderatuta.

## 3.3.3 *Liburutegira joatea*

Biztanleen **% 42,7** joan dira liburutegira behin gutxienez, erreferentziazko urtean. Gehien-gehienak lautan edo gehiagotan joan dira.

26. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren maiztasunaren arabera (%)**



Liburutegira joateari dagokionez, ikasketa-mailaren (amaitutako ikasketak), adinaren araberako aldeak ikusten dira, eta neurri txikiagoan euskararen ezagutzaren eta sexuaren araberakoak ere bai (Ikus erantsitako 25. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Goi-mailako ikasketak dituztenak prestakuntza-maila txikiagoko pertsonak baino gehiago joaten dira liburutegira (% 56,2 eta % 27,6, hurrenez hurren).
- Adinaren arabera, gehien joaten den taldea 15-24 urtekoa da (% 74,8), alde handiarekin gainerakoekin alderatuta. Asistentzia jaitsi egiten da adinak aurrera egin ahala, % 18,7ra iritsi arte 65 urtetik gorako biztanleen kasuan.
- Euskal hiztunak gehiago joaten dira erdaldunak baino (% 54,1 eta % 41,2, hurrenez hurren).
- Emakumeen erdiak erakartzen dituzte liburutegiek (% 50,3). Gizonak gutxiago joaten dira (% 35,6).



Liburutegirako sarbidea batezbestekoaren azpitik dago eremu ez-euskaldunean (% 35,7).

## *Liburutegietako kultura-jarduerak*

Liburutegira gutxienez behin joan den biztanleria erreferentzia gisa hartuta, **% 29,1** sarritan edo noizean behin bertaratu da kultura-jarduera batengatik (biztanleriaren guztizkoarekiko, % 12,5).

27. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietako kultura-jardueretara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




*Oinarria: Azkeneko 12 hilabeteetan, liburutegira gutxienez behin joan diren pertsonak

Liburutegian kultura-jardueretara joateari dagokionez, aldeak ikusten dira bereziki adinaren arabera, eta modu ez hain garrantzitsuan euskararen jakintzan, udalerriaren tamainan eta sexuan (Ikus erantsitako 26. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-mailak ez du alderik markatzen liburutegiek antolatzen dituzten kultura-jardueretarako asistentzian.
- Adinari dagokionez, liburutegirako asistentzia gazteen artean nagusien artean baino handiagoa bazen ere, zehazki kultura-jardueretako asistentziaren kasuan joera aurkakoa da: 45 urtetik gorako pertsonak dira liburutegira gehien joaten direnak kultura-jarduerak egiteko.
- Gizonak baino proportzio handiagoan joaten dira emakumeak (% 26,0 batetik eta % 31,4 bestetik hurrenez hurren).
- Biztanleria euskal hiztuna kasuen % 35,8an joaten da, eta erdalduna gutxiago, % 27,8.

Eremu euskalduna nabarmentzen da biztanleriaren % 40rekin, eremu mistoarekin eta eremu ez-euskaldunarekin alderatuta (% 28,7 eta % 22,9, hurrenez hurren).

## 3.4 Erakusketetarako bisitak

### 3.4.1 *Museoetarako asistentzia*

Biztanleen **% 39,7k** bisitatu dute museoren bat azkeneko 12 hilabeteetan.

28. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Museoetarako asistentziako alde handienak ikasketa-mailari eta adinari kasu eginez ikusten dira (Ikus erantsitako 27. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-maila kontuan izanda, zenbat eta prestakuntza handiagoa, orduan eta asistentzia handiagoa: goi-mailako prestakuntza dutenen arteko ia erdiak joan dira museo batera azken urtean (% 49,3), erdi-mailakoa dutenen % 36,2rekin eta behe-mailakoa dutenen % 33,4rekin alderatuta.
- Adinaren arabera, tarte gazteenen eta 45-54 urteko taldearen asistentzia nabarmentzen da bereziki, eta guztiak ere % 45-% 47ko mailetan daude.
- Udalerriaren tamainaren arabera, hiriburuan eta 25.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnen asistentzia nabarmentzen da (% 46,7 eta % 52,2, hurrenez hurren).

Museotarako asistentzia handiena eremu mistoan detektatzen da (% 42,5).

## 3.4.2 *Arte-galerietarako asistentzia*

Inkestari erantzun diotenen **%16,9k** adierazi dute azkeneko urtean arte-galeriaren bat bisitatu duela.

29. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan arte-galerietara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Arte-galerietarako asistentzia askoz ere apalagoa da, eta apalagoak dira, halaber, batez ere adinari eta udalerriaren tamainari dagozkion aldeak eta, neurri gutxiagoan, ikasketa-mailari eta sexuari dagozkionak (Ikus erantsitako 28. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | **UDALERRIAREN TAMAINA** |
|---|---|---|---|---|

- 45-54 eta 15-24 urteko taldeek modu nabarmenean gainditzen dituzte gainerako taldeak. Azken urteko arte-galerietarako asistentzia % 20,9-% 23,8 bitarteko tarte horietan dago. Esanguratsua da 55-64 urteko pertsonen maiztasun-tasa handia (% 7,6 lau aldiz baino gehiagotan joan dira arte-galeria batera).
- Nabarmentzekoa da 25.001-50.000 biztanleko udalerrietan bizi den biztanleriaren asistentzia handia (% 29).

- Goi-mailako prestakuntza duten pertsonen artean % 21,1ek arte-galeriaren bat bisitatu dute erreferentziazko 12 hilabeteetan.
- Gizonak baino gehiago joaten dira emakumeak (5 puntuko aldea).

Eremu mistoa zertxobait gainetik dago arte-galerietarako asistentzian, atzetik eremu euskalduna eta eremu ez-euskalduna dituelarik (% 18,5, % 15,8 eta % 12,1, hurrenez hurren).

### 3.4.3 *Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua*

Batez ere **oporretan** (% 50,9) egiten dira museo eta galerietarako bisitak. Beste udalerri batzuetarako irteerak eta bisitak dira bigarren aukerarik gustukoena (% 24). Kasuen % 15,7an, udalerrian bertan egiten dira bisitak.

30. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




*Oinarria: Azkeneko 12 hilabeteetan, museo edo arte-galeriara gutxienez behin joan diren pertsonak

Zenbait aldaketa daude patroi orokorrari dagokionez, batez ere adin jakin batzuetan (Ikus erantsitako 29. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Oporren barruko bisitak dira praktika nagusia 25-54 urteko adin-tarteetan. 35-44 urteko biztanleria-taldea nabarmentzen da bereziki (aldien % 66,7an).

- Oporraldia garai nagusi gisa ageri ez den aldagai bakarra 65 urtetik gorakoen adin-tartea da; kasu horretan, beste udalerri batzuetarako irteera eta bisitetan (% 35,3) edo udalerrian bertan (% 27,1) egiten dira bisitak.
- Euskararen ezagutzaren arabera, oporraldietako bisitak ohikoagoak dira euskal hiztunen artean.

Eremuen arabera, aldeak ez dira esanguratsuak. Esanguratsuena zera da, udalerrian bertako bisitak ohikoagoak dira eremu mistoan besteetan baino (% 17,5).

## 3.5 Laburpen konparatiboa

Praktika jakin batzuk egiten diren maiztasunarekiko **zeharkako begirada** batek kultura-jardueren artean hiru bloke detektatzea ahalbidetzen du.

31. Grafikoa.
**Pertsonak, kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)**




*Oharra: Irakurketan irakurritako liburuen kopuruari buruzkoak dira datuak (“1etik 3ra bitarte” eta “4 baino gehiago”) eta bideo-jokoetan erabilera-maiztasunari buruzkoak (“Zenbait aldiz astean edo egunero” eta “Noizean behin”)

Biztanleriaren guztizkoaren % 60ren gainetik honako hauek daude:

- Liburuen irakurketa (% 74)
- Zinemara joatea (% 72,9)
- Kontzertuetara joatea (% 65,4)

Ondoren, % 40tik % 50era bitarteko portzentajeekin, honako hauek ditugu:

- Antzerkira joatea (% 51,6)
- Liburutegira joatea (% 42,7)
- Museoetarako bisitak (% 39,7)
- Dantzara joatea (% 30,1)

Nabarmentzekoak dira dantzara joatea (% 30,1) eta, gutxi gorabehera 10 puntu gutxiagorekin, bideo-jokoetara jolastea (% 19,1) eta arte-galerietarako bisitak (% 16,9) ere.

Gainera, praktika desberdinen **2008-2018 aldiko konparatiba historiko** bat egitea ahalbidetzen duten galderak barnean hartzen zituen inkestak.

32. Grafikoa.
**Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (%)**




*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik beretik datoz 2008ko emaitzak.

Bilakaera positiboen artean, honako hauek nabarmentzen dira gehikuntza handienarekin:

- Antzerkira joatea (portzentajezko +26,7 puntu)
- Kontzertuetara joatea (portzentajezko +21,3 puntu)
- Dantzara joatea (portzentajezko +20,2 puntu)
- Zinemara joatea (portzentajezko +15,3 puntu)

Neurri txikiagoan, honako hauek ere gehitzen dira:

- Liburutegira joatea (portzentajezko +5,8 puntu)
- Bertso-saioetara joatea (portzentajezko +4,6 puntu)

Mantentzen diren praktiken artean museotara joatea eta liburuak irakurtzea daude (% 39 inguru eta % 48 inguru, hurrenez hurren).

Jaitsieren artean, honako hauek daude, intentsitate desberdinekin:

- Grabatutako musika entzutea (portzentajezko -4,6 puntu)
- Egunkarien irakurketa (portzentajezko -7,1 puntu)
- Arte-galerietara edo erakusketetara joatea (portzentajezko -13,5 puntu)
- Aldizkari-irakurketa (portzentajezko -16,1)

Hori gorabehera, parte-hartze kulturalaren **bilakaera global positiboa** egon da hamar lehenen-goen artean.

# 4. ASOZIAZIONISMOA ETA AMATEUR MAILAKO PRAKTIKAK

## 4.1 Asoziazionismo kulturala

Biztanleriaren **% 16,6k** kultura-elkarteren batean parte hartzen du modu aktiboan.

33. Grafikoa.
**Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (%)**




Kultura-asoziazionismoan aldeak ikusten dira batez ere ikasketa-mailan eta euskararen ezagutzaren arabera, eta puntualki maila desberdineko aldeak ikusten dira adinarekin eta udalerriaren tamainarekin lotutako kategoria jakinetan (Ikus erantsitako 30. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Prestakuntzak gehieneko aldeak markatzen ditu behe-mailako prestakuntza dutenen (5 puntu daude batezbestekoaren azpitik, % 11,7rekin) eta goi-mailako prestakuntza dutenen artean (% 22,7, eta 7 puntu bitarte daude batezbestekoaren gainetik).
- Euskal hiztunen artean, parte-hartzea kasuen % 25,7ra arte igotzen da.
- Udalerriaren tamainaren arabera, 25.001 50.000 biztanleko hirietan nabarmentzen da bereziki asoziazionismoa, % 17,1era iritsita.
- Adinen arabera, intzidentzia txikiagoa detektatzen da muturretan: % 8,9ko intzidentzia 15-24 urteko taldean, eta % 13,0ko intzidentzia adin handieneko taldean.
- Azkenik, aldea oso txikia bada ere, parte-hartzeari dagokionez 2 puntu handiagoa da emakumeen artean.

Eremuen arabera, eremu mistoan gertatzen da parte-hartze txikiena (% 14,8).

**2008-2018 konparatiba historiko batean** elkarteetako parte-hartzeak portzentajezko 5,2 punturen jaitsiera izan du.

34. Grafikoa.
**Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera (%)**




## 4.2 Amateur mailako praktika artistikoak

Biztanleriaren **% 36,2k** adierazten du gutxienez urtean behin parte hartzen duela sormenezko jardueretan, hala nola idazketan, margolaritzan, dantzan, artisautzan eta beste hainbatetan.

35. Grafikoa.
**Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak (%)**




Aldeak ikusten dira batez ere adinean eta euskararen ezagutzan, garrantzi gutxiagoko aldeekin gainerako aldagaientzat (Ikus erantsitako 31. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | **EUSKARA JAKITEA** | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Goi-mailako prestakuntza duten pertsonen % 44,1ek egiten dituzte amateur mailako praktikak, eta behe-mailako prestakuntza dutenen % 31,2k, aldiz.
- Adinari kasu eginez, gazteenen artean nabarmentzen dira amateur mailako kultura-praktikak. Sorkuntza-jarduerak egiten dituzten 25-34 pertsonen arteko proportzioa % 59 da gutxi gorabehera, eta portzentaje hori % 46,9ra iristen da 15-24 urteko tartean. 65 urtetik gorakoetan % 22,4raino jaisten da.
- Gizonek baino amateur mailako praktika artistiko gehiago egiten dituzte emakumeek, 6 puntuko aldearekin.

- Ikus daitekeenez, tamaina ertaineko udalerrietan, 10.001-50.000 biztanle dituztenetan, bertako biztanleek amateur mailako sorkuntza-praktika gehiago egiten dituzte udalerri txikiagoko edo hiriburuko bereko pertsonek baino (10 puntuko inguruko aldea).



Amateur mailako praktika gehien egiten dituen biztanleria eremu mistokoa da (% 37,9), atzetik eremu euskalduna eta eremu ez-euskalduna dituelarik (% 33,8 eta % 32,2, hurrenez hurren).

**Zeharkako begirada** batetik ikusita, musika (musika-tresna bat jotzea, %24,4), dantza (% 24,3), eta eskulanak eta artisautza (% 23,6) dira amateur mailako praktika zabalduenak.

36. Grafikoa.
**Amateur mailako kultura-praktiken intzidentzia-rankinga (%)**




Bost ezagunenentzat eranskinean aurki daitezke aldagaien gurutzaketaren emaitzak biltzen dituzten grafikoak (intzidentzia-ordenaren arabera: Erantsitako 32. grafikoa, musikari buruzkoa, Erantsitako 33. grafikoa, dantzari buruzkoa, Erantsitako 34. grafikoa, eskulanei buruzkoa, Erantsitako 35. grafikoa, idazketari buruzkoa eta Erantsitako 36. grafikoa, margolaritzari edo marrazkigintzari buruzkoa).

Ezarpen txikiagoarekin, honako hauek nabarmentzen dira:

- Argazkilaritza, % 12,2rekin.

Finean, gutxiago hedatutako praktiken bloke batekin identifikatzen da, % 6tik beherako eraginarekin:

- Antzerkia (% 5,5).

- Kantua (% 5,4).
- Bideoa (% 4,4) eta beste ikus-entzunezko batzuk (% 2,4).
- Irakurketa-klubak (% 3,4).
- Bertsolaritza (% 1,1).

**2008-2018 aldiko konparatiba historiko bat**[3] eginez, gorakada nabarmena ikusten da margolaritza edo marrazkigintza ez diren arte plastikoak egiteari dagokionez[4], % 5etik % 8,5era igaro baita, eta dantzari dagokionez, % 4,4tik % 8,7ra igaro baita. Idazketaren kasuan ere igoera nabaria gertatu dela ikusten da; 2008ko % 4,7tik egungo % 7,1era.

37. Grafikoa.
**Amateur mailako praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)**




*Oinarria: Biztanleria osoa

Garrantzi txikiagoarekin, igoerak daude halaber musika-tresnak jotzeari dagokionez (% 1,1eko igoera) eta antzerkiari dagokionez (% 0,6ko igoera).

3 2018. urtean ez bezala, praktikak bakarka edo taldean egitea bereizten zen 2008. urtean. Bi aukeren ehunekoak gehitu dira konparazioa egiteko.

4 Kontuan izan behar da kategoria honek "Beste arte plastiko batzuk" zuela izena 2008an eta 2018an, aldiz, "Eskulanak, artisau-lanak (Arte plastikoak)" bezala galdetzen zela.

Aldiz, jaitsi egiten dira argazkilaritzaren praktika (% 9,6tik % 4,4ra), abesbatza batean kantatzea (% 3,9tik % 1,9ra), margolaritza edo marrazkigintza (% 7,9tik % 6,7ra) eta bideoak egitea (% 2,7tik % 1,6ra).

Gainerako praktiketan, aldaketa oso txikiak ikusten dira, balioesteko zailak, praktika minoritarioak baitira.

## 4.3 Arte-trebakuntza

Biztanleriaren **% 33,5ek** arteari edo kulturari lotutako prestakuntzak egin ditu ikastetxetik edo institututik kanpora.

38. Grafikoa.
**Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotutako jardueraren bat egin behar duten pertsonak (%)**




Aldaketa garrantzitsuak ikusten dira ikasketa-maila eta adina kontuan hartuz gero, eta beste zenbait aldaketa ere bai, garrantzi txikiagokoak badira ere, gainerako aldagaietan (Ikus erantsitako 37. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-mailaren arabera, kultura- edo arte-arloko prestakuntza-jarduerak egiteko portzentaje txikiena erdi-mailari dagokio (% 19,9). Proportzio handiena goi-mailan dago (% 42,7) eta erdi-maila % 35,8an dago.
- Adinen arabera, arte- edo kultura-trebakuntzako jardueretako parte-hartzea tarte gazteenen artean nabarmentzen da: 25-34 urtekoen taldean % 47,5era iristen da; 15-24 urtekoen artean % 42,2an dago. Handiagoa da 65 urtetik gorakoen artean (% 29,3) 55-64 urtekoen artean baino (% 21,6).
- Emakumeek gizonek baino zertxobait gehiago hartzen dute parte arte- edo kultura-trebakuntzako jardueretan (% 36,0 eta % 31,1).
- Herrien tamainaren arabera, hiriburua eta udalerririk handienak nabarmentzen dira (% 38,7 eta % 40,6, hurrenez hurren).



Eremu euskaldunean, kultura-trebakuntzako jardueretako parte-hartzea beste bi eremuetan baino 10 puntu txikiagoa da.

**Zeharkako begirada** batetik ikusita, prestakuntza-jardueraren bat egin dutenen artean (biztanleriaren % 33,5), jarduerarik ohikoena musika-tresnaren bat jotzea da (% 38,1). Modu nabarmenean, baina urrun, dantza eta margolaritza edo marrazkigintza ditu atzetik (% 24,4 eta % 22,4, hurrenez hurren)

39. Grafikoa.
**Arte- edo kultura-trebakuntzako alorren rankinga (%)**




Gainera, honako alderdi hauek ikusten dira:

- Musikaren alorreko trebakuntzak protagonismo handiagoa hartzen du, musika-tresnena ez diren beste kategoria batzuk kontuan hartuz gero (% 12,8).
- Arte eszenikoen alorra erakargarria da, dantzako (% 24,4), antzerkiko (% 14,7), beste arte eszeniko batzuetako (% 1,4) eta zirkuko (% 0,2) prestakuntza-jarduera maioritarioak guztiak elkarrekin kontuan hartuta.
- Margolaritzarekin edo marrazkigintzarekin lotutako arte-abileziak eskuratzeak % 22,4 biltzen du, beste arte plastikoen % 13,4rekin eta argazkilaritzaren % 10,9rekin batera.
- Biztanleen % 0,6k adierazi dute Bertso-eskolaren batean ibili dela. Kontuan izan behar da inkestan ez direla kontuan hartu 15 urtez azpiko biztanleak; era horretan, kanpoan geratzen da gaztetxoagoekin ikastetxeetan egiten den irakaskuntza-lana.

Eranskinean, hiru prestakuntza-alor nagusietarako gurutzaketa-aldagaiak jasotzen dituzten grafikoak aurki daitezke: (Erantsitako 38. grafikoa, musika-tresna bat jotzen ikasteari buruzkoa, Erantsitako 39. grafikoa, dantzako prestakuntzari buruzkoa eta Erantsitako 40. grafikoa, margolaritzari edo marrazkigintzari buruzkoa).

# 5. PRAKTIKA DIGITALAK

## 5.1 Interneterako sarbidea

Biztanleriaren **% 77,9k** dio modu erregularrean sartzen dela Interneten; horrela, bada, jende gehienaren artean oso hedatuta dagoen praktika da.

40. Grafikoa.
**Internetera modu erregularrean sartzen diren pertsonak (%)**




Alde esanguratsuak ikusten dira batez ere adinaren eta ikasketa-mailaren arabera (bi errealitateak lotuta egon daitezke, laginaren karakterizazioan ikusi ahal izan denez). Modu apalagoan, alde txikiagoak ikusten dira udalerriaren tamainaren arabera. Emaitzak Erantsitako 41. grafikoa ikus daitezke:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- 34 urterainoko tarteak dira Internetera gehien sartzen direnak (% 95). Sarbide-mailak jaitsi egiten dira adin horretatik aurrera, bi jauzi handirekin 55 urte inguruan eta 65 urtetik aurrera. 55-64 urteko taldea, % 70,8ra iristen da sarbidea, eta % 41,4ra iristen da 65 urtetik gorakoan (% 50,9).
- Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa, orduan eta erabilera handiagoa. Goi-prestakuntza duten pertsonak nabarmentzen dira (% 94,5 sarbide erregularrarekin). Erdi-mailako prestakuntza duten pertsonak kasuen % 84,9an sartzen dira eta behe-mailakoa dutenak kasuen % 49,7an.

Interneterako sarbide-maila erregularra eremu mistoan handiagoa da (% 81,1), atzetik eremu ez-euskalduna eta eremu euskalduna dituelarik (% 73,3 eta % 69,0, hurrenez hurren).

## 5.2 Kultura-praktika digitalak

Arretagaitzat Internetera erregularki nortzuk sartzen diren hartuz gero (biztanleriaren % 77,9), aldeak ikusten dira kultura-praktiken artean. Emaitzetan ikusten den bezala (41. grafikoa, hurrengo orria), Internet ez da mundu ez-digitalean egiten diren praktikak beste formatu batean errepikatzen den lurraldea, baizik eta bereziki, informaziora sartzeko bitarteko eroso bat:

- Lehenik, oso zabalduta dauden (% 70etik gora) lau praktikak osatutako blokea nabarmentzen da, albisteen irakurketa, informazio-bilaketa, wikien kontsulta eta musika entzutea uztartuz.
- Bigarrenik, gutxiago zabalduta dauden (% 41 eta % 52 bitartean) praktikek osatutako bloke batek kultura-edukiko sarbide- edo deskarga-praktikak biltzen ditu, eta horrekin batera, zuzeneko ikuskizunetarako tiketen erosketa eta webgune edo blog pertsonaletarako bisita.
- Azkenik, % 30en azpitik, praktiken multzo zabal eta askotariko bat dugu: irratia entzutea (% 27,4), ikuskizunak zuzenean Interneten ikustea (% 24,2%), liburutegi bateko zerbitzuak erabiltzea (% 19,9), bideo-jokoetara jolastea (% 17,5), museoetara bisita birtualak egitea (% 14,8) eta, azkenik, webguneak edo blogak sortzea (% 8,3).

41. Grafikoa.
**Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (%)**




*Oinarria: Internetera erregularki sartzen den biztanleria (% 76,3)

Horrela, 42 eranskineko grafikoan (zuzenean irakurtzea), 43. eranskinekoan (informazioa bilatzea), 44. eranskinekoan (musika entzutea) eta 45. eranskineko grafikoan (wikiak kontsultatzea), gurutzaketa-aldagaiek praktika digital hedatuenei nola eragiten dieten kontsulta daiteke.

## 5.3 Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea

Biztanleriaren guztizkoaren **% 31,7k** kontu bat dauka kultura-edukia duen plataforma digitalaren motaren batean (% 41,1ek erregularki Internetera sartzen den biztanleria soilik kontuan hartuz gero).

42. Grafikoa.
**Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Internetera modu erregularrean sartzen den biztanleriaren barruan, kultura-edukiko plataforma digitaletarako harpidetzak pisu handia du gazteen artean batez ere, nahiz eta aldeak ere badauden ikasketa-mailaren kategorien eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 46. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Adinaren arabera, harpidetza-proportzio gehien duten taldeak, alde handiarekin, 15-24 eta 25-34 urtekoak dira (% 77,7 eta % 61,2, hurrenez hurren). Portzentajea jaitsi egiten da 65 urteko edo gehiagoko talderentzat, non % 15,0 markatzen duen.
- Ikasketa-mailaren arabera, adinaren araberakoak baino askoz ere txikiagoak dira aldeak. Pertsona prestatuagoak kasuen % 46,2an daude harpidetuta, erdi-mailako ikasketak dituztenak % 35,5ean eta behe-mailako ikasketak dituztenak % 42,2an.
- Biztanleria euskal hiztunak 5 puntuko aldea ateratzen dio biztanleria erdaldunari (% 45,8 eta % 40,5).
- Proportzio zertxobait txikiagoan harpidetuta daude emakumeak gizonak baino (% 39,8 eta % 42,5, hurrenez hurren).
- 10.000 biztanletik beherako herrietan internauta erregularren batezbestekoaren zertxobait azpitik dago proportzioa, % 36,2rekin.

Plataformek antzeko intzidentzia dute eremu mistoan (% 42,9) eta eremu ez euskaldunean (% 42,0), eremu euskalduna oso atzean dagoelarik (% 27,6).

## *Kontu mota*

Horrelako plataformetan konturen bat duten ohiko internautak kontuan hartuta, **hirutik bik ordainketa-kontu bat daukate**, dela banakoa (% 41,3), dela taldekoa (% 25,3).

43. Grafikoa.
**Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Gurutzaketa-aldagaiekin ikusten den alde esanguratsuenak ordainketa-kontuarekin du zerikusia, norbanakoak edo taldekoak direla. 34 urtetik beherakoen artean, taldeko kontuek pisu handiagoa dute 35 urtetik gorakoen artean baino. Norbanako ordainketa-kontuek espezifikoki pisu handiagoa dute 45 urtetik gorakoen artean, baita erdaldunen artean ere eta, zertxobait, pertsona prestatuagoen artean.

Doako kontuak nabarmendu egiten dira 35-44 urte dutenen, erdi- edo behe-mailako prestakuntza dutenen, euskal hiztunen eta herri txikienetako biztanleen artean. Hori guztiak ikus daiteke Erantsitako 47. grafikoa.

## *Kultura-edukien tipologia*

Biztanleria osoa kontuan hartuz, **% 22,5ek** kontu bat du plataforma musikal batean eta **% 21,3k** film eta telesailen plataforma batean. Biztanleriaren **% 5,7** liburu digitalen plataforma batera harpidetuta dago.

44. Grafikoa.

**Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak beren tipologiari jarraikiz, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Erantsitako 48. grafikoan ikus daitekeenez (zeinak aldeak aztertzen dituen normalean Internetera sartzen den eta harpidetza motaren bat duen biztanleria oinarri gisa hartuta), nolabaiteko aldeak daude profilen lehentasunetan:

- Ikasketa-mailaren arabera, musika plataformek intzidentzia handiagoa dute gutxien prestatutako profilen arabera (% 80,5eraino). Gainera, ikus-entzunekoek intzidentzia handiagoa dute behe- zein goi-mailako ikasketetan.
- Adinaren arabera, liburu digitalen plataformek gehitu egiten dute beren garrantzia, batez ere 44 eta 64 urte bitartean, intzidentziaren ia % 34,8 lortu arte. Era berean, ikus-entzunezko plataformak nabarmendu egiten dira 65 urtetik gorako pertsonen artean (% 81,3) eta musikakoak tarte gazteenean, 15-24 urteko tartean (% 88).
- Euskararen ezagutzaren arabera, euskal hiztunen segmentuak presentzia handiagoa du musika-plataformetan (% 77,8 eta % 70,0), eta erdaldunena, berriz, zertxobait gainetik dago liburuenean (% 18,3 eta % 16,7).
- Gizonen eta emakumeen artean, liburuen plataformen intzidentzia handiagoa nabarmentzen da (% 25,7). Besteetan, aitzitik, erabilera zertxobait handiagoa da gizonen artean.
- Udalerriaren tamainaren arabera, soilik ikusten da liburu digitalen plataformek intzidentzia handiagoa dutela 50.000 biztanlerainoko udalerrietan; ikus-entzunezkoak nabarmendu egiten dira tamaina handiagokoetan eta hiriburuan, eta musikakoak 10.000 biztanle baino gutxiagokoetan.



Liburu digitalen plataformek presentzia handiagoa dute eremu euskalduneko biztanleria internautaren artean (% 20,7), baita musikakoak ere (% 82,8). Ikus-entzunezkoa, eremu mistoan (% 69,8) eta eremu ez-euskaldunean (% 63,0).

## 5.4 Sare sozialak parte-hartze kulturalean

Internetera erregularki sartzen den biztanleriaren artean:

- % 26,9k beste autore batzuen material artistiko edo kulturala partekatzen du, eta % 19,7k material propioa.
- % 18,8k sareak erabiltzen ditu beste artista batzuk ezagutzeko edo haiekin harremanetan jartzeko, profesionalak edo amateurrak direla ere.
- % 14,5ek ere gogoeta pertsonalak idazten ditu sare sozialetan, eta % 7,5ek blog eta webgune pertsonaletan idazten du.
- % 13,4k gai kultural edo artistikoetako foroetan parte hartzen du.

45. Grafikoa.
**Ohiko internauten artean, kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentziaren rankinga (%)**




*Oinarria: Internetera erregularki sartzen den biztanleria (% 77,9)

Erantsitako 49. grafikoan (Beste egile batzuen materiala partekatzea), 50. grafikoan (Norbere materiala partekatzea), 51. grafikoan (Beste artista edo zale batzuk ezagutzea edo haiekin harremanetan jartzea), 52. grafikoan (Gogoetak idaztea), 53. grafikoan (Foroetan parte hartzea) eta 54. grafikoan (Webgune edo blog batean idaztea) gurutzaketa-aldagaiek praktika bakoitzari nola eragiten dioten kontsulta daiteke.

# 6. EUSKARAZKO PARTE-HARTZE KULTURALA

## 6.1 Euskara jakitea

Nafarroako Foru Komunitateko biztanleriaren **% 11,7** da euskal hiztuna, euskara ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenak. Ondorengo grafikoak ikuspegi zabalagoa eskaintzen du, baina bi kategoria hauek aurrerago analisian erabiltzen den biztanleria euskal hiztuna identifikatzen dute.

46. Grafikoa.
**Euskararen ezagutza-maila, gaitasun ezberdinen arabera (%)**




Euskararen ezagutzak alde garbia du adinaren eta, neurri txikiagoan, ikasketa-mailaren arabera. Era berean, udalerriaren tamainaren arabera orain ere, hizkuntza-eremuak bereizketarekin argi eta garbi zerikusia duten aldeak ikusten dira (Ikus erantsitako 55. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|

- Goi-mailako prestakuntza duen biztanleriaren arteko euskal hiztunen proportzioa % 13,7ra igotzen da, % 11,8an dago erdi-mailako prestakuntza taldearentzat eta % 9,2an behe-mailako prestakuntza duen taldearentzat.
- Adinaren arabera, aldeek beheranzko progresio lineal bati jarraitzen diote: biztanleria gazteenak euskararen ezagutza handiagoa du. 15-24 urteko bitartekoek euskara kasuen % 23,1ean hitz egiten dute Portzentajea 9 puntu jaisten da hurrengo taldearentzat, 25 eta 34 urte bitartean dagoena (% 14,7). 35 urtetik aurrera, jaitsiera leundu egiten da % 8,0ra iritsi arte 65 urtetik gorakoetan.

- Udalerriaren tamainari dagokionez, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan lortzen du mailarik handiena, % 15,1era iritsita
- Sexuaren arabera, batezbestekoarekiko aldeak oso ahulak dira, baina ikus daiteke emakumeak zertxobait goitik daudela eta gizonak ere zertxobait gainetik (% 12,8 eta % 10,8, hurrenez hurren).



Biztanleria euskal hiztuna hizkuntza-eremuen arabera bereizten da neurri handi batean: % 48,7 da eremu euskaldunean, % 8,0 eremu mistoan eta % 1,5 eremu ez-euskaldunean.

2008ko datuak abiapuntutzat hartuta, euskararen ezagutzaren **bilakaera zertxobait positiboa** izan dela ikus daiteke (48. Grafikoa), % 10,3tik % 11,7ra igaro baita.

47. Grafikoa.
**Biztanleria euskal hiztunaren bilakaera, 2008tik 2018ra (%)**




*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik datoz 2008ko datuak.

## 6.2 Euskarazko parte-hartze orokorra

Biztanleriaren **% 13,4** da euskarazko parte-hartze kulturala (eskuarki euskaraz parte hartzen dutela dioten pertsonak).

48. Grafikoa.
**Normalean euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**



Hizkuntza jakiteak mugatzen du euskarazko parte-hartze kulturala, eta horrekin batera berezko kultura-praktika bakoitzaren ezaugarriek eta hizkuntzak praktika bakoitzean duen eragina. Ildo horretan, ez da gauza bera musika entzutea eta liburu bat edo aldizkari bat irakurtzea, bertso-saio batera joatea edo euskarazko antzerkira joatea. Praktika batzuk beste batzuk baino testualagoak dira, eta, horrenbestez, hizkuntza jakitearen eragina aldatu egiten da praktika horien artean. Zenbat eta testualagoak izan, oztopo handiagoa izan liteke gaitasun nahikoa ez daukatenentzat.

Azterketan uztartzen diren eta eragina duten elementuak dira. Parte hartzen duen biztanleriaren arteko aldean egiazta daiteke, osorik hartzen bada edo biztanleria euskal hiztuna soilik hartzen bada. Azken segmentu horri erreparatzen badiogu, normalean euskaraz parte hartzen duen biztanleria **% 61,2ra** iristen da.

Euskarazko parte-hartze orokorrean alde txikiak ikusten dira ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 56. grafikoa):

| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako prestakuntza duen taldea nabarmentzen da, euskarazko jardueretako % 16,2ko parte-hartze erregularrarekin, atzetik erdi-mailako ikasketak dituen taldea eta behe-mailako ikasketa dituen taldea dituelarik (% 9,5).
- 10.000 biztanletik beherako udalerrietan % 18,8ra iristen da euskarazko parte-hartzea.

Eremuen araberako parte-hartze kulturalak euskararen ezagutzari buruzko patroiari jarraitzen dio, % 44,3ra iristen da eremu euskaldunean, % 10,1era eremu mistoan eta % 5,7ra eremu ez-euskaldunean.

## 6.3 Euskarazko kultura-praktikak

### 6.3.1 *Praktika eszenikoak eta musikalak euskaraz*

#### *Antzerkia euskaraz*

Arte eszenikoen publikoaren artean[5], –biztanleriaren % 51,5–, **% 15,8** euskarazko antzezlanen bat ikustera joan da. Zuzeneko arteen publiko euskal hiztunari begiratuz gero, erdiak inguruk (% 52,5) hartu du parte euskarazko proposamenetan.

5 Azkeneko 12 hilabeteetan, gutxienez ikuskizun batera joan diren pertsonak (% 51,5).

49. Grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Euskarazko antzerki-emanaldietara joan direnei erreparatuz gero –euskal hiztunak zein erdaldunak–, aldeak daude ikasketa-mailaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 57. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|

- Adinaren arabera, detektatzen da 35-44 urteko tarteko pertsonak direla, 45-54 urteko tartearekin batera, euskarazko antzerkira gehien joaten diren pertsonak (% 18 - % 20).
- Gainera, udalerriaren tamainaren arabera, asistentzia handiagoa da herri txikienetan (% 19,8ko portzentajea 10.000 biztanle baino gutxiagokoetan).
- Azkenik, detektatzen da goi-mailako ikasketak dituztenen artean batezbestekoa baino asistentzia handiagoa dagoela (% 18,5).



Euskarazko antzerki-ikuskizunetara joaten den jende-proportzio handiena eremu euskaldunean dago (% 42,2). Eremu mistoan, % 14,9ra iristen da portzentajea.

## *Musika euskaraz*

Biztanleria osoaren **% 40,5ek** entzuten ditu eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak. Portzentaje hori % 89,9 da, euskal hiztunak bakarrik aztertzen baditugu. Kontuan izan behar da oso hedatuta dagoen praktika dela musika entzutea eta, gainera, hizkuntza ez dela oztopo gaindiezin bat.

50. Grafikoa.
**Eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Biztanleria osoaren euskarazko musika entzutearen azterketa eginda, adinari, ikasketa-mailari eta udalerriaren tamainari lotuta zenbait kategoria bakarrik nabarmentzen dira Ikus erantsitako 58. grafikoa):

| | | | |
|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- % 40,5eko batezbestekoaren azpitik behe-mailako prestakuntza duten pertsonak daude (% 32,9), 25-54 urtekoak (% 36-% 37 inguru) eta 15-24 urtekoak (% 38,4), baita 25.000-50.000 biztanleko hirietan bizi direnak ere (% 22,1).



Eremuei dagokienez, eremu euskaldunean portzentajea argi eta garbi da batezbestekoa baino handiagoa (% 67,5), batezbestekoaren ia berdina da eremu mistoan (% 41) eta askoz ere txikiagoa eremu ez-euskaldunean (% 23,0).

## ***Bertsolaritza***

Arte eszenikoaren publikoaren artean[6] –biztanleria osoaren % 51,5–, **% 11** joan da bertso-saioren batera.

51. Grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




6 Azkeneko 12 hilabeteetan, gutxienez ikuskizun batera joan diren pertsonak (% 51,5, laginaren guztizkoa kontuan hartuta).

Alde nabarmenak detektatzen dira ikasketa-mailako kategoria espezifiko guztien bidez, adinaren bidez eta udalerriaren tamainaren bidez (Ikus erantsitako 59. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|

- Bertsolari-ikuskizunetarako asistentzia-batezbestekoaren gainetik daude erdi- eta behe-mailako ikasketak dituzten pertsonak (% 13,3 eta % 12,2) eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren pertsonak (% 15,8).
- Era berean, adina kontuan izanda, ez dago patroi argirik: asistentzia handiagoa ikusten da 65 urtetik gorako taldean (% 15,5), % 12 inguru daude 55-64 urteko eta 25-34 urteko pertsonak.
- Azkenik, gizonak zertxobait daude batezbestekoaren gainetik (% 12,1).



Bertso-saioetara asistentzia % 37,0ra igotzen da eremu euskaldunean. Eremu mistoan ez da batezbestekora iristen (% 9,4).

## 6.3.2 *Euskarazko ikus-entzunezko praktikak*

### *Zinema euskaraz*

Biztanleria osoaren **% 7k** nahiago du (ez da benetako asistentzia) euskarazko zinema. Euskal hiztunen kasuan, % 55,2raino iristen da.

52. Grafikoa.
**Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Berriz ere, nahiago izate hori ohikoagoa da adinarekin, ikasketa-mailarekin eta udalerrien tamainarekin lotuta dago kategoria jakin batzuetan (Ikus erantsitako 60. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|

- Euskarazko zinema nahiago izatea handiagoa da 34 urte arteko pertsonen artean: 15-24 urte dituztenen % 11 eta 25-34 urte dituztenen % 9,4.
- Ikasketa-mailaren arabera, nahigo izate hori batezbestekoa baino handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten artean (% 8,7)
- Udalerriaren tamainari dagokionez, nahiago izate handiagoa detektatzen da berriz ere 10.000 biztanletik beherako herrietan (% 9,4).

Eremu euskaldunean biztanleriaren % 31,2k nahiago du euskarazko zinema: eremu mistoan, aldiz, % 4,6an dago portzentaje hori.

## *Irratia eta telebista euskaraz*

Oso antzeko publiko-portzentajea dute euskarazko irratiak eta telebistak: **% 11,6** eta **% 9** hurrenez hurren, zertxobait handiagoa irratian. Kontuan izan behar da irratiaren eta telebistaren kasuan, oro har, kontrakoa gertatzen dela: irratia entzuten duen publikoa telebista ikusten duena baino gutxiago da.

Logikoa denez, euskarazko kontsumo hori ugaritu egiten da euskal hiztunen artean: % 60,8 inguruk euskarazko irratia kontsumitzen dute eta % 55,3k, telebista.

53. Grafikoa.
**Irratia eta telebista euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




